


**Nazioarteko babesaren eta aldi baterako babesaren eskatzaileek** eta onuradunek lan egiteko baimena daukate, beren administrazio egoeraren arabera.


Lan egiteko baimen horrek ez du mugarik eremu geografikoari eta jarduera sektoreari dagokionez.



Jarraian, nazioarteko babesaren eta aldi baterako babesaren eskatzaileek eta onuradunek izan ditzaketen **administrazio egoerak** aztertuko ditugu.

## Zehar Errefuxiatuekin Zerbitzu Juridikoa

( zehar )  
errefuxiatuekin

 747 497 434

 [info@zehar.eus](mailto:info@zehar.eus)

EUSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO

BERANTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZATZE POLITIKETAKO SALA  
Gorria Politikako Sailburuordetza  
Migración y Asilo Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES  
Vocacionalista de Políticas Sociales  
Dirección de Migración y Asilo

MIGRAZIOZAKO  
EUSKAL  
ITUN SOZIALA  
FACTO SOCIAL  
VASCO PARA  
LA MIGRACION



# Errefuxiatuak kontratatzeko informazio baliagarria

1

## Nazioarteko babes- eskaera aurkezteko borondatearen adierazpena

Egoera honetan dagoen pertsona:

- Erregularitasunez dago Espainian, nazioarteko babes- esk aera aurkezteko borondatea agertu duelako, baina oraindik ez du formalizatu.
- **Oraindik ez dauka lan egiteko baimenik.**



Egiaztagiria



3

## Izapidetzen ari den nazioarteko babesaren eskatzailearen egiaztatzea (Txartel gorria)

Egoera honetan dagoen pertsona:

- **Lan egiteko baimena dauka.**
- Nazioarteko babesaren esk atzaile izaerari eutsiko dio, harik eta esk aerari behin betiko erantzuna eman arte, nahiz eta dokumentu horrek urtebeteko balioa izan.



Egiaztagiria



2

## Nazioarteko babes- eskaera aurkeztu izanaren frogagiria

Egoera honetan dagoen pertsona:

- **Ohartarazpenen lehen paragrafoan adierazten den datatik aurrera lan egiteko baimena dauka.**
- Nazioarteko babesaren esk atzaile izaerari eutsiko dio, harik eta esk aerari behin betiko erantzuna eman arte, nahiz eta dokumentu horrek g hilabeteko balioa izan.



Egiaztagiria



4

## Lekualdatutako pertsonentzako aldi baterako babes- eskaera aurkeztu izanaren frogagiria (Ukraina)

Egoera honetan dagoen pertsona:

- Aldi baterako babes a eskatu du Ukrainako gerratik ihesi datorrelako.
- Ez du zertan Ukrainako nazionala izan. Nahikoa da egoitza baimena izatea herrialde horretan gatazka lehertu zenean.
- **Dokumentu hau eskuratu eta 24 ordu igaro ondoren lan egiteko baimena du.**



Egiaztagiria



5

## Nazioarteko babes- eskaeraren ebazpena

Nazioarteko edo aldi baterako babesaren eskatzaileek eskaera ebatzita ikusten dutenean, ematen zaien babes mota adierazten duen ebazpen bat ematen zaie:

- Errefuxiatu izaera aitortzea eta asilo- eskubidea ematea
- Babes subsidiariorako eskubidea ematea
- Espainian bizitzeko baimena, honako arrazoi honengatik: Nazioarteko babes humanitarioa
- Aldi baterako babes a ematea

**Lau babesetako edozein emateak berekin dakar lan egiteko baimena eta emandako babes a egiaztatzen duen** Atzerritar Nortasun Txartela (ANT) jasotzeko eskubidea.



Egiaztagiria



6

## Ukatzearen aurkako errekurtsobidean dauden nazioarteko babesaren eskatzaileak

Nazioarteko babes- eskaera ukatu zaien eskatzaileek ez dute zertan galdu lan egiteko baimena. Errekurtsoa jar dezak ete eskaera ukatzen duen ebazpenaren aurka, eta, bertan, ebazpen hori eteteko eskatu, errekurts a ebatzi arte. Kasu horretan, Espainian lan egiteko eskubideari eutsiko liokete. Egoera hori erraz egiazt a daiteke errekurts a hori jarri izana egiaztatzen duen justifik atzaile baten bidez.



Egiaztagiria

